

Bertzeen bizitzetan sartzeaz

**Maider IANTZI
GOIENETXE**

Bertzeen bizitzetan sartzen naizenean, ez naiz ongi sentitzen gero neure buruarekin. Asmo onarekin egiten badut ere, laguntzeko edo bidea (nik nahi dudana) erakusteko, badakit bere irizpidearen gaineratik jartzen ari naizela nirea, eta bere gaineratik jartzen ari naizela ni. Iritzi edo uste argi bat dudala iruditzen zaidanean, mezetakoak baino sermoi luzeagoak botatzeko gai naiz, masailak gero eta gorrituago eta bihotz taupadak azkartuago. Ondotik, adrenalina hori jais-tea dezente kostatzen zait.

Justu barne-zurrumbiloa baretzeko momentu horietan sortu zait zutabe hau. Pertsonok maizegi egiten dugu bertzeek nola bizi behar duten jakiten

saiatzeko akatsa, baina bakoitzak bere iparrroratza du. Batzuetan gerta daiteke hurbilenekoen eta gehien maite ditugun norabidea eta gurea bat ez etortzea. Hori errespetatu eta onartzea da haiek maitatzea. Hori diost nire sentitze sakinak. Orduan nago lasai eta bakean. Harelere, praktikan ari naiz oraindik: hanka sartu, ohartu, eta espazioa inbaditu diodan lagunari adierazi.

Dilema baten aitzinean aurkitzea ere gertatu zait egunotan. Galderak gure barne gidarekin konektatu gabe erantzuten saiatzen garenean, zailtasunak bete gaitezke. Egoera horretan, pasatu izan zait analisi luzeetan sartzea, bertzeen begietara egin beharko nukeenaz arduratzea edo bertzeei galdetzea, eta, hori

eginda, are nahasiago sentitzea. Aldiz, hots horiek guztiak isildu eta bihotzari aditzen badiogu, erantzuna garbi jakinen dugu. Hala ez bada, guregan oraindik ez direlako horretarako baldintzak betetzen izanen da. Egunotako dileman, puntu honetan nago, erantzun argirik gabe oraingo, ez bada pausa bat egitea.

Atsedena edo geldialdi horretan, aholkuak jasotzea ekidinezina izanen da. Unearen (eta gomendioaren) arabera, haserretuko naiz edo zinez eskertuko dut, baina konfiantza izanen dut, dagoneko badakidalako nire barne gida edo sentitze sakona dela, irizpide malguz – gauza bera ertz ezberdinetatik berrikusiz, aldiro ñabardura berriekin– niretzat ona dena eta niri buruzko egia dakiena.

#Bajadikako27ak

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Lizarrako Udaletxean UPNk gobernatzen du itxikeria eta nagusikeria ikur hartuta, alderdiaren ohiko markak. Istorioa pasa den udan lehertu zen, herriko jai nagusietan 28 urtez txosna gunea izan zena udal gobernuak debekatu eta ibai ondora apartatu zuenean. Suziria lehertua zuen.

Berehala eman ziren protesta ekintzak eta abuztuko jaien atarian giroa gori-gori zegoela kaleratu zuen Raimundo el Canastero bertako musika taldeak Marta Ruiz de Alda UPNko alkateari zuzendutako Beef D'Alda abesti satiriko eta polemikoa.

“Behia“, beraz “lodikote“, deitzen zaiola iritzita, Alda andereak bost taldekide sala-

tu zituen, eta baita hilabeteetara salaketa gorroto delitura igotzeko saiakera egin ere, baina martxoan Nafarroako Probintzia Auzitegiak atzera bota dio eta, beraz, boskoteak Lizarran izango duen epaiketari soilik delitu arina egotziko zaie.

Beste kapitulua jaietako lehen egunean eman zen, abuztuaren 2an: erabakiaren kontra manifestazio erraldoia burutu ondoren urteroko *Bajadica del Puy* ospatzen ari zirenean, musikarien eta dantzarien atzetik zihoazen udal ordezkariak protestan hartu zituztenean herritarrek. Udalak ekitaldia bertan behera utzi zuen eta alkate eta zinegotziak foruzainen furgonetan atera zituzten.

Gorroto-eldarnioak jota bizi den Alda andereak, udaltzainen eskutik, desordena publikoaz akusatzen ditu 27 gazte, eta maiatzaren 22an deklaratu dute epailearen aurrean. UPN, PSN, polizia indarrak eta “Diario de Navarra” kriminalizazio kanpainaren erantzule jotzen dituzte gazteek, eta protesta eskubidea aldarrikatzeko datorren larunbatean elkarretaratzeratu dute. Historian zenbait gauza ez dira aldatzen, aldatuko ez den bezala Alda anderearen gorroto-eldarnio asegaitza, epai biak krudelenak izanik ere.

Istorio honek emango ditu ziur asko kapitulu gehiago... ezer onik ez Lizarra aldean. •